


2023ko abuztuan, Euskal AEko industria-prezioak % 1,5 igo dira aurreko hilaren aldean

2022ko abuztuarekin alderatuta, industria-prezioak % 2,6 jaitsi dira

Eustaten datuen arabera, 2023ko abuztuan, Euskal AEko industria-prezioak % 1,5 igo dira aurreko hilaren aldean. Abuztuko urtearteko tasa % 2,6 jaitsi da. Tasa horrek jasotzen du zer aldakuntza izan duten industria-prezioek azken hamabi hiletan.

Azterketa zehatzago batek agerian uzten du ezen, 2023ko abuztuan, *Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria* (% 1,9), *Industria kimikoa* (% 0,5) eta *Ura* (% 0,3) sektoreek izan dituztela prezio-jaitsierarik handienak aurreko hilaren aldean. Aitzitik, sektore hauek izan dituzte hiletik hilerako prezio-igoerarik handienak: *Koke-lantegiak eta petrolioaren fintzea* (% 11,2), *Botiken fabrikazioa* (% 1,4) eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (% 1,2).

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Ondasunak helburu ekonomikoaren arabera sailkatuz, *Energiaren* prezioak % 6,3 igo dira 2023ko uztailaren aldean. Bestalde, bai *Bitarteko ondasunen* prezioak, bai *Ekipo-ondasunen* % 0,6 igo dira. *Kontsumo-ondasunen* prezioak, aldiz, % 1,6 jaitsi dira. Izan ere, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak % 1,8 jaitsi dira, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioak egonkor mantendu direlako.

2023ko abuztuan, 2022ko abuztuarekin alderatuta, urtetik urterako prezio-jaitsiera handienak honako adar hauetan izan dira: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 20,7), *Koke-lantegiak eta petrolio-findegia* (% 13,8) eta *Industria kimikoa* (% 6,3). Aitzitik, urtetik urterako igoerarik handiena prezio hauek izan dute: *Ateratze-industriak* (% 10,4); *Kautxua, plastikoa eta beste produktu mineral ez-metalezkoak* (% 10,0), eta *Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria* (% 9,2).

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Abuztua 2023

	INDIZEA	ALDEAREN %	
		m / m-1	m / m-12
INDIZE OROKORRA	129,9	1,5	-2,6
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	123,4	1,0	10,4
Manufaktura-industria	130,6	1,6	1,0
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	131,4	-1,9	9,2
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	108,5	-0,1	7,0
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	144,9	1,2	6,2
Kokeak eta petrolio finitzen	150,0	11,2	-13,8
Industria kimikoa	146,1	-0,5	-6,3
Botiken fabrikazioa	131,7	1,4	6,5
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	120,4	0,0	10,0
Metalurgia eta produktu metalikoak	138,9	0,7	-0,3
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	121,5	0,1	1,6
Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	116,7	-0,1	3,4
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	115,0	-0,1	5,0
Garraiorako materialen fabrikazioa	113,4	1,2	7,4
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	121,3	0,7	6,9
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	125,9	0,7	-20,7
Ura	132,3	-0,3	8,5
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	129,0	-1,6	8,1
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	117,8	0,0	6,3
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	130,8	-1,8	8,4
Ekipo-ondasunak	118,5	0,6	5,1
Bitarteko ondasunak	134,4	0,6	2,4
Energia	140,0	6,3	-17,7

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2023ko Irailaren 22a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Prezioen aldakuntza, urtetik urterako balioetan, positiboa izan da helburu ekonomikoaren arabera sailkatutako ondasun-talde handi guztientzat, *Energiarentzat* izan ezik, % 17,7ko jaitsiera izan baitu. *Kontsumo-ondasunen* prezioak % 8,1 igo dira. Izan ere, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak % 8,4 igo dira, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrenak* % 6,3. *Ekipo-ondasunen* prezioak % 5,1 hazi dira, eta, azkenik, *Bitarteko ondasunenak* % 2,4.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie parte hartu duten establezimendu guztiei, egindako ahaleginagatik. Haiei esker, hil honetako indizea lagingaren % **93,70**eko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62